

Suradesako Administrazio Kontseiluak 2023ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo jaso zen:

5.- Eusko Jaurlaritzak salaketak jasotzeko duen Postontzira atxikitzea eta iruzurraren aurkako unitatearen ordezkariak eskuordetzea Eusko Jaurlaritzara. Next Generation Funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Lankidetzaz hitzarmena birgaitze bulego eta birgaitze-gaietako laguntza programen erakunde laguntzaile funtzioak garatzeko, Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3,4 eta 5 programei dagokienez, erakundeek eginkizunak betetzeko orduan, besteak beste Iruzuraren Aurkako neurrien plan bat onartu egin behar zuen.

2022ko martxoaren 30ean egindako Administrazio Kontseiluan Eusko Jaurlaritzak onartutako Iruzuraren aurkako neurrien planari atxikitu zen.

Plan horren jarraipena egiteko Sozietateak Iruzuraren Aurkako unitate bat sortu behar du edo Eusko Jaurlaritzak duen Iruzuraren Aurkako Unitatera atxiki daiteke.

Bestalde Sozietateak salaketak jartzeko postontzi bat martxan jarri beharko luke.

Hitzarmena sinatu dugun sozietateak aukera dugu, Eusko Jaurlaritzak duen Iruzuraren Aurkako Unitatean ordezkariak eskuordetza erabili ahal izateko.

Hori horrela, Iker Urbinak Eusko Jaurlaritzak duen Iruzuraren Aurkako Unitatean ordezkariak eskuordetzea eta Salaketak Jartzeko Postontzia erabili ahal izatea proposatzen du.

Iker Urbinak proposatutakoa kontutan izanda administrazio Kontseiluko kideek aho batez ZERA ERABAKI DUTE:

Lehenena.- Eusko Jaurlaritzak duen Iruzuraren Aurkako Unitatean ordezkariak eskuordetzea, next generation funtsak kudeatzeko eskakizuna bete ahal izateko.

Bigarrena: Eusko Jaurlaritzak duen Salaketak Jartzeko Postontzia erabiltzeko erabakia.

Hirugarrena: Lehendakariari baimena ematea behar diren agiriak sinatzeko.

Laugarrena: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari jakinaraztea.

Arrasaten, 2023ko martxoaren 31an

Zuzendariak
Izpta.: Iker Urbina